

Ordiziako Artzain Egunean egin dute omenaldia

**EROSKI IDIAZABAL GAZTAREN ALDE EGITEN ARI
DEN LANA AITORTU DUTE ORDIZIAN**

- **2014an, %14 Idiazabal Jatorri Izeneko gazta gehiago erosi zuen EROSKI, guztira 129.000 kilo baino gehiago**
- **Gaur egun, Idiazabal Jatorri Izeneko gazten %10 inguru saltzen du EROSKI**
- **EROSKI %10,5 gehiago saldu zuen iaz produktu horretatik**

Ordizia, 2015eko apirilaren 8a.- Ordiziako Udalak Igor Eguren alkatearen bitartez, Idiazabal Jatorri Izeneko Kontseilu Erregulatzailerako presidente Jose Maria Ustarrozek eta Ordiziako Idiazabal Gaztaren Kofradiako Mastre Handi den Jesus Mari Ormaetxeak aitortu egin dute EROSKI Idiazabal Gaztaren banaketan eta zabalkundearen egiten duen lana. Gotzon Elizburu EROSKIren Aliantza Estrategikorako zuzendariak hiru sari jaso ditu, Ordiziako Artzain Egunean, aurtengo lehen Idiazabal gaztaren aurkezpen ofizialean egindako omenaldian. Hor izan dira, berebat, Bittor Oroz Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza, Arrantza eta Elikagaien Politikako sailburuordea eta Martin Garitano Gipuzkoako ahaldun nagusia.

"Sendo ari gara Idiazabal Jatorri Izeneko gaztaren alde. Jatorri Izenaren bitartez ekoizten diren kalitatezko gazten %10 erosten du EROSKI. 2014an, %14 Idiazabal Jatorri Izeneko gazta gehiago erosi genuen; guztira, 129.000 kilo baino gehiago", esan du Gotzon Elizburuk. EROSKI %10,5 gehiago saldu zuen iaz produktu horretatik.

"Aitortza horrek erakusten du EROSKI sendo ari dela Idiazabal Jatorri Izeneko gaztaren alde eta konpromiso zehatzak hartuak dituela. Kooperatibak ahaleginak eta bi egin ditu EROSKIren saltokietara hurbileneko artzainen produktuak eramateko. Gainera, SeleQtia marka propioaren barnean sartu du Idiazabal Jatorri Izeneko Artzai-Gazta; horrek erakusten du gure gazten kalitate nabarmenean dagoen konfiantza", nabarmendu du Jose M. Ustarozek.

EROSKI harreman komertziala du Idiazabal Jatorri Izeneko 30 bat gazta ekoizlerekin. Gehienak enpresa ertainak eta txikiak dira, Idiazabal gazta eskuz egiten aritzen direnak. *"Ekoizle gehienekin 'enpresa txiki eta ertainetarako EROSKIren konpromisoa' ari da lantzen kooperatiba; hala, uztartzen ari da kontsumitzaileek tokiko produktuen autentikotasunarekin duten interes gero eta handiagoa eta tokiko enpresa txiki askoren profesionalizazioa eta hazkuntza", adierazi du kooperatibaren Aliantza Estrategikoetarako zuzendariak.*

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
OSCAR GONZALEZ URIARTE

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

**EROSKI – PRENTSA BULEGOA
CONSEJEROS DEL NORTE**

ZIORTZA BERISTAIN
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

www.eroski.es > [Notas de prensa](#)
www.consumer.es

"2014an, bi kanpaina monografiko egin ditugu gure kulturaren eta gastronomiaren ikur den produktu hau indartzeko. Gainera, Idiazabal Jatorri Izeneko gaztaren promozioa ez dugu bakarrik egin Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako EROSKIren dendetan; beste eskualde batzuetara ere zabaldu dugu; bereziki, Kataluniara, Caprabo saltokien bitartez", esan du Gotzon Elizburuk.

Lankidetzaren hitzarmena

Idiazabal Jatorri Izenak eta EROSKI lankidetzaren hitzarmena sinatu zuten 2014an, elkarrekin lantzeko latxa eta carranzana ardien esne gordinarekin egiten den gazta kalitate ziurtagiriduna. Hala, kooperatiba bihurtu da lehen banatzailea horrelako akordio bat egiten, gazta salduta sektorearen garapenean eta iraupenean laguntzeko.

Hitzarmen horren atzean, EROSKI Eusko Jaurlaritzarekin eta Nafarroako Gobernuak INTIA-Reyno Gourmetekin sinatutako konbenioak daude; horien bitartez, helburua da tokiko elikagaien industria eta ekoizpen ehunaren aniztasuna indartzea.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
OSCAR GONZALEZ URIARTE

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA

CONSEJEROS DEL NORTE

ZIORTZA BERISTAIN
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

www.eroski.es > [Notas de prensa](#)
www.consumer.es